A.T.V.
1937

ATV
1938

N-5525 A.T.J.
R-1331 1938

# CRISTIÑAU DOCTRIÑEA

BERE

# ESPLICACIÑO LABURRAGAZ

ITAUNE TA ERANZUERACAZ

***AITA ASTETEREN***

LIBURUCHUTIC ATEREA

BIZCAITAR BARRUCUENTZAT.

---

## AZQUENEAN IMINTEN DIRA

ARIMEN SALBACIÑORACO

BEAR EDO ONDO DIREAN GAUZA BATZUC.

---

URTETEN DAU ARGUIRA BARRIRO

**BUSTURICO BICARIACO**

ABADE JAUNEN ENCARGUZ.

DURANGON

FLORENTINO ELOSU-REN MOLDETEGUIAN

1899-GARREN URTEAN.



El texto de la explicación de los Mandamientos de la Santa Madre Iglesia que se ha añadido en esta edición, es propiedad de la Imprenta y Librería de Elosu.

N.: 484

## *SARREREA*

Cristiñau fiel guztiac
Dagoz guztiz obligadurio
Debociño artutera
Euren biotz guztiric
Jesus gure arguiaren
Curutze santuagaz;
Bada au ill gura izan eban
Gu ateratiagaiti
Gure pecatubetati
Ta arerio gaiztoti.
Orregaitiño bada
Eguin bear zara
Alan ceñatutera
Celan santigüetara
Iru Curutze eguiñagaz:
Lenengoa becoquian
Jaungoicoac gorde gaizan
Pensamentu gaiztoetatic:

Bigarrena aoan
Jaungoicoac gorde gaizan
Berba deunguetatic:
Irugarrena bularrean
Jaungoicoac gorde gaizan
Eguite ta gogo charretatic:
Modu onetan esanaz:
Curutze † Santearen
Señaleagaiti,
Gueure † arerioetatic
Libradu gaguizuz,
Gueure † Jaun ta Jaungoicoa.
Aitiaren ta † Semearen
Ta Espiritu Santuaren
Icenean. Amen.

## AITA GUREA

Aita gurea, ceruetan zagozana, santificadu bedi zure icena, betor gugana zure erreinua, eguin bedi zure borondatea, celan ceruan alan lurrean. Emon eiguzu gaur gueure egunian eguniango oguia, ta parcatu eiguzuz gueure zorrac gueuc gueure zordunai parquetan deutseguzan leguez,

ta ichi ez eiguzu tentaciñoan jausten, baña libradu gagnizuz gachetic. Amen.

## *AVE MARIJA*

Abe Marija, graciaz betea, Jauna da zugaz, bedeincatua zara zu andra guztien artean, ta bedeincatua da zure sabeleco frutua Jesus. Santa María, Jaungoicuaren Ama, erregutu eguizu gu pecatarioc gaiti, orain ta gueure eriotzaco orduan. Amen.

## *CREDOA*

Sinistuten dot Aita Jaungoico guztiz poderoso, ceruaren ta lurraren criadoreagan, eta aren Seme bacar Jesucristo gure Jaunagan; cein sortu zan Espiritu Santuaren obraz ta graciaz. Jayo zan María Birgiñagandi; padecidu eban Poncio Pilatosen aguinduaren bean; izan zan crucificadua, illa ta enterradua; jatsi zan infernuetara; eta irugarren egunean biztu zan illen artetic. Igo eban ceruetara eta dago jarriric Aita Jaungoico guztiz poderosoaren escumatati. Andic etorrico da biciac ta illac-

juzguetara. Sinistuten dot Espiritu Santuagan, Eleisa Santa Catoliquea, Santuen communiñoa, pecatuen parcaciñoa, araguiaren biztuerea, bicitza beticoa. Amen.

## *SALBEA*

Jaungoicoac gorde zaitzala, Erreguiña erruquiz beterico Ama bicitza gozotasun eta esperanza gueurea. Jaungoicoac gorde zaitzala. Ceure deiez gagoz Ebaren ume erbestetuoc. Ceugana gagoz gu cizpurus sentimentuz eta negarrez negarrezco erri onetan. Ea bada, Andrea bitarteco gueurea, biurtu eguizu guganantz zure begui erruquitsu orrec. Eta erbeste au irago eta, eracutsi eguiguzu Jesus ceure sabeleco frutu bedeincatua. ¡O biotz biguna! ¡O erruquiorra! ¡O Maria Birgiña gozoa! erregutu eguizu gugaiti, Jaungoicoaren Ama santea merecidu daigun alcancetea Jesucristoren aguintzariac. Amen Jesus.

## AMAR MANDAMENTUAC

*Jaungoicuaren legueco mandamentuac dira amar: lenengo irurac dagocaz Jaungoicuaren onreari, ta beste zazpirac progimuaren probechoari.*

Lenengoa, Jaungoicoa ametea gauza guztien gañean.

Bigarrena, ez juramentu bidebagaric eguitea.

Irugarrena, jai egunac ondo gordetea.

Laugarrena, aita ta ama ouratea.

Bostgarrena, ez iñor iltea.

Seigarrena, araguizco pecaturic ez eguitea.

Zazpigarrena, ez ecer ostutea.

Zortzigarrena, iñori falso testimonioric ez ezartea, ta guzurric ez esatea.

Bederatzigarrena, lagunaren emazteric ez deseetea.

Amargarrena, besteen ondasunic ez gura izatea.

Amar mandamentu onec sartuten dira bitan, Jaungoicoa amatean gauza guztien

gañean, ta ceure progimoa ceure burua leguez.

## ARTICULO FEDECOAC

*Dira amalau: lenengo zazpirac dagocaz Jaungoicotasunari, ta beste zazpirac Jesucristo gure Jaun, Jaungoico ta guizon eguiazcoaren guizotasun santuari.*

*Jaungoicotasunari dagocazanac dira onec.*

Lenengoa, sinistu Jaungoico guztiz poderoso bacar bategan.

Bigarrena, sinistu dala Aita.

Irugarrena, sinistu dala Semia.

Laugarrena, sinistu dala Espiritu Santua.

Bostgarrena, sinistu dala Criadore edo gauza guztien eguillea.

Seigarrena, sinistu dala Salbaguillea edo gracia emoten dabena.

Zazpigarrena, sinistu dala glorificadorea edo Gloria emoten dabena.

*Guizontasunari dagocazanac dira onec.*

Lenengoa, sinistu Jesucristo gure Jauna guizona danez sortu izan zala Espiritu Santuaren obraz ta graciaz.

Bigarrena, sinistu jayo zala Santa Maria Birgiñeagandic gueratuten zala Birgiña Semea jayo baño lenago, jayotzean ta jayo ezquero.

Irugarrena, sinistu artu ebala eriotzea ta pasiñoa gu pecatarioc salbetearren.

Laugarrena, sinistu jatsi zala infernuetara bere etorrera santuaren beguira egozan Gurazo santuen arimac ateratera.

Bostgarrena, sinistu irugarren egunean biztu zala illen artetic.

Seigarrena, sinistu igo ebala ceruetara, ta an dagoala jarriric Aita Jaungoico guztiz poderosoaren escumatati.

Zazpigarrena, sinistu aric etorrico dala biciac eta illac juzguetara: esan gura dau onai gloria emotera gorde cituezalaco bere mandamentu santuac, eta gueistoai betico penea cerren gorde ez cituezan.

# CRISTIÑAU DOCTRIÑIAREN ESPLICACIÑO
## EDO AZALDUERA

ITAUNEZ TA ERANZUTEZ.

ITAUNEA. Cristiñaua zara?

ERANZUNA. Bai, Jaungoicuaren graciaz.

I. Nundi yatorzu Cristiñauaren icen ori?

E. Jesucristo gure Jaunagandi.

I. Cer esan gura dau Cristiñauac?

E. Cristoren guizona.

I. Cer adietan dozu Cristoren guizonaz?

E. Jesucristoren fedea daucana, cein artu eban bautismo santuan, ta bera serbietara aguinduric dagoana.

I. Cein da Cristiñauaren señalea?

E. Curutze Santua.

I. Cegaitic?

E. Cegaitic dan Cristo curutzian yosiaren irudibat, ceñetan erosi guinduzan.

I. Ceinbat modutara eguiten dau Cristiñauac señale ori?

E. Modu bitara.

I. Ceintzuc dira?

E. Ceñatutea, ta santiguetutea.

I. Cer da ceñatutea?

E. Da escumaco orcoroagaz iru curutze eguitea: lenengoa becoquian, bigarrena aoan, irugarrena bularrean, gueure Jangoicuagaz berba eguiten dogula.

I. Eracutsi celan?

E. Curutze santearen † señaleagaiti; gueure † arerioetati gorde gaguizuz † gueure Jauna ta Jaungoicoa.

I. Cegaitic ceñatuten zara becoquian?

E. Jaungoicuac gorde gaguizan pensamentu gaiztoetatic.

I. Cegaitic aoan?

E. Jaungoicuac gorde gaguizan berba gaiztoetatic.

I. Cegaitic bularrean?

E. Jangoicuac gorde gaguizan eguite ta gurari gaiztoetatic.

I. Cer da santigüetutea?

E. Escumaco atz bigaz curutze bat eguitea, becoquitic bularrera, ta ezquerreco sorbaldati escumacora Trinidade guztiz santeari gagocazala.

I. Eracutsi celan?

E. Aitearen ta Semearen † ta Espiritu

Santuaren iceneau. Amen.

I. Nos eguin bear dozu señale ori?

E. Obraren bat asten dogun guztian edo bearren baten, tentaciño, edo peligruan icusten gareanean, baita bere oeti jagui, echeti urten, eleisan sartu, ta oera echuten gareanean.

I. Cegaiti orrembeste bider?

E: Cegaitio beti, ta lecu guztien tentau ta perseguietan gaituezan gueure arerioac.

I. Cer arerio dira orrec?

E. Demonioa, Mundua ta Araguia.

I. Beraz curutzeac badau escu ta indarra arerio orren contra?

E. Bai Jauna.

I. Nundi dau birtute ori curutzeac?

E. Cristoc bere eriozeaz anche goitu edo bencidu cituzalaco.

I. Curutzea adoretan dozunean, celan esaten dozu?

E. Adoretan, ta bedeinquetan zaituguz Cristo, cegaitic zure curutzearen birtutez mundua erosi cenduan.

## Cristiñauac jaquin bear dituzan gauzac.

Icusi dogu Cristiñau zareana alan icenez, celan señalez. Baya orain esan eguidazu.

I. Ceimbat gauza jaquin biar ditu Cristiñauac errazoearen arguira datorrenean?

E. Lau gauza.

I. Ceintzuc dira?

E. Jaquitea cer sinistu, cer escatu, cer eguin ta cer artuco daben.

I. Celan jaquingo dau cer sinistu bear daben?

E. Credoa edo Fedeco Articuloac jaquiñaz.

I. Celan jaquingo dau cer escatuco daben?

E. Aita gurea ta Eleisaco beste oraciñoac jaquiñaz.

I. Celan jaquingo dau cer eguin bear daben?

E. Jaquiñaz Jaungoicuaren legueco amar mandamentuac, Eleisa Ama Santearenac ta Obra misericordiazcoac.

I. Celan jaquingo dau cer artuco daben?

E. Jaquiñaz zazpi Sacramentuac.

## DOCTRIÑEAREN LENENGO PARTEA ceñetan esplicadu edo azalduten dan Credoa eta Articulo fedeçoac.

I. Gatozan lenengora: noc esan eban Credoa?

E. Apostoluac.

I. Cetaraco?

E. Fedeco gauzac guri iracasteco.

I. Eta zuc cetaco esaten dozu?

E. Cristiñauac daucagun fede au autortu edo confesetaco.

I. Ce gauza da Fedea?

E. Icusi ez dogunna sinistutea.

I. Icusi cenduan jayoten Jesucristo?

E. Ez jauna.

I. Icusi cenduan ilten edo cerura igoten?

E. Ez jauna.

I. Eta sinistuten dozu?

E. Bai jauna.

I. Cegaitic sinistuten dozu?

E. Cegaitic gure Jaungoicuac alan aguertu deutsan Eleisa ama Santeari ta onec alan iracasten deuscun.

I. Eta cerzuec dira Cristiñaua leguez

daucazuzan eta sinistuten dozuzan gauzac?

E. Erromaco Eleisa Ama Santeac daucazan ta sinistuten dituzanac.

I. Eta certzuc dira berac eta zeuc sinistuten dozuzanac?

E. Fedeco articuluac, batez bere credoan dagozan leguez.

I. Cer dira Articulo fedecuac?

E. Dira Fedeco misterioric principal edo andienac.

I. Cetaraco dira Fedeco articuluac?

E. Gueure Jaungoicuaren ta Jesucristo gueure Salbaguillearen barri edo ezauera argui ta ciatzagoa emoteco.

I. Cer ta cein da gueure Jaungoicua?

E. Da esan al ta gogora ecarri aldeitequean gauzaric goyen ta miragarriena; Jaun bat eciñ obea, alzu edo poderosoa, jaquituna, sucena, gauza guztien asierea ta amay edo acaberea.

I. Cer da Trinidade guztiz Santua?

E. Da Jaungoicoa bera Aita, Semea ta Espiritu Santua, iru Persona bana edo bata besteac ez direanac, ta Jaungoico eguiazco bacar bat.

I. Aita Jaungoicoa da?

E. Bai jauna.

I. Semea Jaungoicoa da?

E. Bai jauna.

I. Espiritu Santua Jaungoicoa da?

E. Bai jauna.

I. Eta iru Jaungoico dira?

E. Ez jauna, ezpada Jaungoico eguiazco bacar bat.

I. Aita bada Semea?

E. Ez jauna.

I. Espiritu Santua bada Aita edo Semea?

E. Ez jauna.

I. Cegaitic?

E. Cegaitic personac banac edo diferenteac direan, izan arren Jaungoico eguiazco bacar bat.

I. Jaungoicoa celan da guztiz poderosoa?

E. Cegaitic bere podere bacarragaz eguiten dabelaco gura daben guztia.

I. Celan da Criadorea?

E. Eguin cituzalaco gauza guztiac ecebere eceti.

I. Celan da Salvadorea?

E. Cegaitic gracia emoten daben ta pecatuac parquetan dituzan.

I. Celan da Jaungoicoa Glorificadorea?

E. Cegaitic bere gracian dirauenai emon daruaquen gloria.

I. Badau Jaungoicoac guc leguez gorputz irudin edo ichuraric?

E. Jaungoicoa dan aldez ezdau, cegaitic dan Espiritu uts, garbi ta naste baguea; baña bai guizona danez.

I. ¿Jaungoicozco iru personetati cein eguin zan guizon?

E. Bigarrena, cein dan, Semea.

I. Aita eguin zan guizon?

E. Ez jauna.

I. Espiritu Santua eguin zan guizon?

E. Ez jauna.

I. Cein bada?

E. Bacarric Semea, ceñeri guizon eguin da derichan Jesucristo.

I. Orrelan bada nor da Jesucristo?

E. Jaungoico biciaren Semea, gu erredimitearren ta guri ondo bici izaten iracastearren guizon eguin zana.

I. Cer esan gura dau Jesusen icen onec?

E. Salbadorea.

I. Cetati salbadu guinduzan?

E. Gure pecatuetati ta gaizquiñaren cautiberioti.

I. Cer esan gura dau Cristoc?

E. Ungidua.

I. Cegaz ungidua izan zan?

E. Espiritu Santuaren graciyagaz ta doez.

I. Jesucristo gure Jauna celan sortu zan Birgiña zan Amaganic?

E. Jaungoicoaren eguitade miragarrizco ta naturaleciaz gañeticoaz.

I. Eta bere Ama beti izan zan Doncella eta garbi?

E. Bai jauna, beti.

I. Cergaitic curutzean ill gura izan eban Cristoc?

E. Pecatu ta betico eriotzati gu libretearren.

I. Jesucristo ill ta jatsi zan infernuaren icenaz cer adietan dozu?

E. Ez condenaduen lecua, espada onac egozana ta limboa derichona.

I. Celan jatsi zan?

E. Arima Jaungoicotasunari batubaz.

I. Eta aren gorputza celan gueratu zan?

E. Jaungoicotasuna berari batu edo uniduric.

I. Celan biztu zan irugarren egunean?

E. Aren gorputz ta arima gloriaz betea barriro batuten ciriala gueyago ez illteco.

I. Celan igon eban Ceruetara?

E. Berez, iñoc jaso baga.

I. Aita Jaungoicoaren escumatati yarrita egotea cer da?

E. Jesucristo Jaungoicoa dan aldeti bere Aita Jaungoicoac beste gloria daucala, ta guizona dan aldeti beste iñoc baño gueyago.

I. Noz etorrico da biciac ta illac juzguetara?

E. Munduaren azquenean.

I. Eta ill guztiac biztu bearco dabe orduan?

E. Bai jauna, euren gorputz ta arima len cituezanacaz.

I. Cer adietan dozu Santuen comuniñoa esanaz?

E. Cristiñau fiel guztiac partilla dauque-

ela besteen espirituco ondasunetan, gorputz bateco zatiac leguez, cein dan Eleisea.

I. Cerda Eleisea?

E. Da cristiñau fielen batzaar edo congregaciñoa, ceñen burua dan Aita Santua?

I. Nor da Aita Santua?

E. Erromaco Aita nagusia, lurrean Cristoren ordecoa, ceñeri obedietara gagozan guztioc obligaduric.

I. Credoaz ta Articuloaz gañean besteric sinistuten dozu?

E. Bai jauna. Escritura Santan dagoana ta Jaungoicoac bere Eleisseari aguertu deutsan guztia.

I. Cer gauza dira orrec?

E. Ez niri ori itandu, guichi jaquiña nazalaco: Eleissa Ama Santeac baditu eranzuten jaquingo dabenac.

Maisuac.—Ondo diñozu, Eleissaco Iracasleai dogoque, ez zuri, Fedeco gaucetan gueyago ta luceago contu emotea. Zuretzat asco da Articuluen contu emotea Credoan dagozan leguez.

## DOCTRIÑEAREN BIGARREN PARTEA

### ceñetan azaldu edo espliquetan da cer escatu bear dan eta Eleissa Ama Santearen oraciñoac.

Icusi dogu celan daquizun sinistu bear dana, au zan aurrengoa: gatozan orain bigarrenera, non azalduten dan escatu bear dana. Esan eguidazu:

I. Noc esan eban Aita gurea?

E. Jesucristoc.

I. Cetaraco?

E. Erregututen guri iracasteco.

I. Cer da erregututea?

E. Da Jaungoicoagana biotza jasotea eta mesedeac escatutea.

I. Aita gurea esatean nogaz berba eguiten dozu.

E. Gueure Jaun ta Jaungoicoagaz.

I. Nun dago gueure Jaungoicoa?

E. Lecu guztian, batezbere Ceruan ta altaraco Sacramentu chito santuan.

I. Oraciñoen artean cein da onena?

E. Aita gurea edo Pater nosterra.

I. Cegaitic?

E. Cegaitic Apostoluac escatu ta Cristoc bere aoz esan eban.

I. Cegaitic gueyago?

E. Cegaitic daucazan zazpi escari caridade osoti datozanac.

I. Ceintzuc dira?

E. Lenengoa, santificadua izan bedi zeure izena.

I. Cer escatuten deutsazu escari orretan?

E. Izan dedilla ezagutu ta onradua Jaungoicoaren icena mundu guztian.

I. Cein da bigarrena?

E. Betor gugana zeure erreinua.

I. Cer escatuten deutsazu escari orretan?

E. Erreinau daguiala Jaungoicoac gure arimetan emen lurrean graciaz, ta guero emon daigula gloria ceruan.

I. Cein da irugarrena?

E. Eguin bedi ceure borondatea celan ceruan alan lurrean.

I. Cer escatuten dozu escari orretan?

E. Eguin daguigula Jaungoicoaren borondatea lurrean gagozanoc, ceruan zorionecoac eguiten daben leguez.

I. Cein da laugarrena?

E. Emon eiguzu gaur gueure egunian eguniango oguia.

I. Cer escatuten dozu escari orretan?

E. Jaungoicoac emon daigula gorputzari dagocan mantenimentua, eta arimearentzat gracia eta Sacramentuac.

I. Cein da bostgarrena?

E. Parcatu eguiguzuz gueure zorrac, gueuc gueure zordunai parquetan deutseguzan leguez.

I. Cer escatuten dozu escari orretan?

E. Parcatu daguiguzula Jaungoicoac gueuri gueure pecatuac, gueuc parcatuten deutsegun leguez gach eguin deuscuenai.

I. Cein da seigarrena?

E. Ichi ez eiguzu tentaciñoan jausten.

I. Cer escatuten dozu escari orretan?

E. Ez deigula ichi Jaungoicoac, deabruac jausi eraguiteco ecarten deuzcuzan pensamentu gaiztoetan jausten, ez orrei lecuric emoten.

I. Ceinda zazpigarrena?

E. Baña libradu gaguizuz gachetic.

I. Cer escatuten dozu escari orretan?

E. Jaungoicoac libradu gaguizala arimaco ta gorputzeco gach ta arrizcu guztietatic.

I. Baña cegaitic asieran lenengo esan dozu Aita gurea ceruetan zagozana?

E. Jaungoicoagana biotza jasoteco, ta umiltasunez eta confianzaz ari escatuteco.

I. Azquenean esaten dozun berbeac: Amen: cer esan gura dau?

E. Alan izan dedilla.

I. Ce oraciñoe esaten deutsazuz sarrien Ama Birgiñeari?

E. Abe Maria ta Salbea.

I. Noc esan eban Abe Maria?

E. Aingueru San Gabrielec Ama Birgiñeari agur eguitera etorri zanean.

I. Noc esan eban Salbea?

E. Eleissa Ama santeac dauca artuta.

I. Cetaraco?

E. Ama Birgiñeari mesedeac escatuteco.

I. Abe Maria, edo Salbea esaten dozunean nori zayagocaz?

E. Birgiña Maria gueure Ama andreari.

I. Nor da Birgiña Maria gure Ama andra ori?

E. Da birtutez beterico andra bat, Jaungoicoaren Ama eta ceruan dagoana.

I. Eta altaran dagoana nor da?

E. Ceruan dagoanaren imagiña edo aren irudiya.

I. Cegaitic Ama Birgiña bacar bat baño izan ez da, iminten dira Altaretan imagiña asco, ta icen bana edo desbardiñacaz?

E. Onrretaco Ama Birgiña bacarra bera modu ascotara, edo titulu ascoren azpian.

I. Cetaco iminten dira altaran ta euqui echeetan bere imagiñac?

E. Oneen bidez gomuta gaitean ceruan dagoanagaz, ta bere ichura edo imagiñac dirialaco, ecarri daiegun erreberencia.

Maisua.—Eguizu bada alan beste Santuen imagiñacaz bere.

I. Ainguera, ta santuei bere erregutu bear deutsegu?

E. Bay Jauna, gueure bitartecoai leguez.

I. Ce gauza dira ainguerua c?

E. Ceruan Jaungoicoa gozetan dagozan

espiritu zorioneco batzuc.

I. Cetaraco eguin cituan Jaungoicoac?

E. Bera beti, edo dempora guztietan alabadu eta bedeinquetaco.

I. Eta cetaraco gueyago?

E. Bere ministroac leguez Eleissea zaindu, ta guizonac bere gordeetaco.

I. Beraz zuc bere baucazu aingueru gordetan zaituzana?

E. Bay, baucat, ta guizon bacochac dau berea.

Maisua. Bada artu eguiozu debociño andia, ta encomenda zaquioz egunean egunean.

## IRUGARREN PARTEA

### ceñetan adierazo ta asalduten da eguin bear dana.

Icusi dogu cer sinistu, ta cer escatu bear dan; dacuscun celan daquizun, cer eguin bear dan.

I. Esan eguizu: cein da Jaungoicoaren legueco lenengo mandamentua?

E. Jaungoicoa gauza guztien gañean ametea.

I. Noc ametan dau Jaungoicoa?

E. Bere mandamentuac gordetan dituanac.

I. Cer da gauza guztien gañean bera ametea?

E. Gura izatea guztiac galdu bera ofendietea baño.

I. Cetara gacaz gueyago mandamentu onec?

E. Bera bacarric gorputz, ta arimaco erreberenciaric andienagaz adoretara, fede biciaz beragan sinistu ta icharoten dogula.

I. Noc pecatu eguin darua onen contra?

E. Ezcuz eguinico idolo, edo jaungoico asmau, ta guzurrezcuac adoretan dituanac, edo orretan sinistuten dabenac.

I. Noc gueyago?

E. Aztuei fede edo sinistea emoten deutseenac, ta echiceria edo sorguinqueriac usetan dituezanac.

I. Cein da bigarren mandamentua?

E. Ez juramentu bide bagaric eguitea.

I. Noc eguin darua juramentu donga edo bide bacua?

E. Eguia, justicia edo bearric bags eguiten dabenac.

I. Eta eceri ez daocola criaturac gaiti juramentu eguitea pecatu da?

E. Bay Jauna, cegaitic euretan egui-ten jacan Criadoreari.

I. Guzur ezagutuaren gañean juramen-tu eguitea ce pecatu da?

E. Beti da pecatu mortala.

I. Eguiaren gañean, ta justiciaren aguinduz juramentu eguitea pecatu ete da?

E. Ez Jauna; ta bai gauza ona; baña pecatu guztiz esquerguia guzurragaz egui-tea.

I. Eta iñori on eguitarren edo erregua-ren erreguz eguin ete leique guzurrezco juramenturic?

E. Ez da mundu guztiagaiti bere.

I. Cer eguin bear dabee informaciñoren bat artuteco demporan deituten badabe juramentuaz gaucia esatera?

E. Asti edo eperic emoten bajaco, egon confesoreaz, ta artu consejua; ta dan le

guez dala, ecin iñoz guzurrezco declaraciñoeric emon legui.

I. Premiña baga; baña eguia ezagutuaz juramentu eguitea, ce pecatu da?

E. Berez pecatu beniala.

I. Cein da irugarrena?

E. Jai egunac gorde, edo santututea.

I. Noc jai egunac gordeetan dituz?

E. Meza osoa enzun, ta jai osoa bada, bear edo lanic eguiten ez dabeenac, premiña estu, edo errazoezco baga.

I. Cein da laugarrena?

E. Aita, ta Ama onretea.

I. Noc onretan dituz gurasoac?

E. Euren esan onac eguin, eurai lagunduta lotsea gordetan deutsenac?

I. Nor besteric adietan dau gurasoen icenac?

E. Nagusiagoac direanac edadean, dignidadean, ta gobernuan.

I. Cein da bostgarrena?

E. Ez iñor iltea.

I. Cer aguinduten da mandamentu onetan?

E. Iñori ez gachic eguitea, ez obraz, ez

berbaz, ez gogoz, ez gorputz ez ariman.

I. Cein da seigarrena?

E. Pecatu loi edo araguizcoric ez eguitea.

I. Cer aguinduten jacu mandamentu onetan?

E. Gorde gaiteala garbi, edo casto pensamentu zantarrai lecuric emon baga, berba ezain edo nasayac esan ta gogoz enzun baga, ta sentiduei atseguin loiric emon baga.

I. Cein da zaspigarrena?

E. Ez ostutea.

I. Cer aguinduten da mandamentu onetan?

E. Ez quendu, ta ez euquitea iñoren gauzaric bere jaubearen borondate baga.

I. Cein da zortzigarrena.

E. Testimonio palsoric ez ezartea, ta guzurric ez esatea.

I. Cer aguinduten da mandamentu onetan?

E. Lagunagaiti erraz edo arin juzgu dongaric ez eguitea, eta aren paltac ez esatea premiña baga, ta ez enzutea borondatez.

I. Noc austen dau mandamentu au?

E. Errazoe zucen baga juzgu donguia eguiten dabenac, bide dongaz iñoren pecatua aguertuten dabenac, ta guzurra esaneraz diñuenac.

I. Bederatzi ta amargarren mandamentuan cer debequetan da?

E. Araguizco atseguiñen, ta iñoren ondasunen deseo edo gurari era bagacoac.

## Eleissa Ama Santearen mandamentuac bost dira.

Lenengoa domeca ta jai guztietan meza osoa enzutea.

Bigarrena, urtean bein edolabere confesetea, ta leenago ilteco peligroric badago, edo comulgau bear bada.

Irugarrena, Pazcoa garizumaeuetan comulguetea.

Laugarrena, Eleissa Ama Santeac aguinduten dabenean barau eguitea.

Bostgarrena, amarren ta primiciac Jaungoicoaren Eleissiari zucen paguetea.

I. Cetaco dira mandamentu onec?

E. Jaungoicoarenac obeto gordeetaco.

## BOST MANDAMENTUBEN
esplicacinua.

Lenengua, meza osua entzutia domequetan ta jaiyetan.

I. Cer da mezia?

E. Jesucristo gure Jaunaren bicitza, pasino ta eriotziaren gomuta bat.

I. Celan entsun biar da mezia?

E. Atencino ta debocino andijagaz.

I. Eta nortzuc dauque obligacinua mezia entzuteco?

E. Errazoiagaz balijetara eldu dirian cristinau guztijac.

Bigarrena, confesetia guichienez urtian bein, edo lenago erijotzaco peligruric badago, edo comulgauco bada.

Irugarrena, comulguetea Pasco garizumacuetan.

I. Nortzuc dagoz obliganta urtian bein confesetara, ta pasco garizumacuetan comulguetara?

E. Errazoiagaz valijetara eldu dirian cristinau guztijac.

I. Eta deungaro confesaubagaz, ta comulgaubagaz betetan dabe obligacino au?

E. Ez, Jauna, ta eguiten ditube ganera peçatu mortal bi.

I. Eta ilteco peligruban confesore baga aurquituten danac ¿cer eguin biar dau?

E. Acto contriciñozco bat, bere demporan confesetaco intencinuagaz.

Laugarrena, barau eguitia Ama Eleissa santiac aguinduten dabeniau.

I. Nortzuc dauque obligacinua barau eguiteco?

E. Oguei ta bat urte igaro jaquezanac beintzat iruroguei urterañó.

I. Eta ceintzuc ez dauque obligacino au?

E. Gueisoric dagozanac ta biar gogorretan dabiltzanac.

I. Barau eguiteco aguinduac ¿ze egunetan biurtu edo obliguetan dau?

E. Garizumaco egun guztietan, domecac apartauta; urteco lau demporetaco iru egunetan, au da, eguaztenian, baricuan ta

zapatuan; abenduco baricu ta zapatuetan, onezas ganetic Gabon egunian, eta Mayatz Pasco besperan, San Pedroren besperan, Santiagorenian, Andra Marija Agostucoarenian eta Santu guztijenecuan.

I. Ta ogueta bat urte ez dauquezanac, ¿badauque eguinbear edo obligaciñoren bat barau egunetan?

E. Bai, Jauna, Bulda bagaric eziñ jan leije oquelaric; ta barriz garizuman ez oquelaric, ez oquelatic datorren gauzaric, auda, ez arrautzaric ez esne gauzaric.

I. Barau egunetatic gañera, ¿badago beste egunic oquelia jan eziñ leiquianic?

E. Bai, Jauna, Bulda bagaric eziñ jan leique oquelaric garizumaco domequetan ta urteco baricuetan.

I. Españatarrai, ¿autortu deuzcu Aita Santuac grazijaren bat barau egunetan oquelia, ta garizuman arrautza ta esne gauzac jan al isateco?

E. Bai, Jauna; Curutzeco ta oquelaco Bulden bitartez; baña Bulda santu oneo artu arren, eziñ nastau gueinquez barau egunetan oquelia ta arraiña, ez da garizu-

maco domequetan bere; eta ezin jan gueinque oquelaric autzen egunian, garizumaco baricuetan, aste santuco asquenengo lau egunetan eta Mayats Pasco besperan; San Pedroren besperan, Andra Marija Agostucoarenian, eta Gabon egunian.

I. Bigilija ta barau egunetan oquelia eta arraña ez naztetaco aguinduac betetan ez dituzanac, ¿ze pecatu eguiten dan?

E. Pecatu astuna, eurac auzten dituzan bacochian.

I. Zetan gastetan da Bulda santuagaz artuten dan limosnia?

E. Curutzeco Buldiaren limosnia Eleisa pobrietan eta oquelacuarena ospital santuetan.

## MISERICORDIAZCO OBRAC

amalau dira, lenengo zaspirac dagocaz arimeari, ta beste zaspirac gorputzari.

ARIMEARI DAGOCAZANAC DIRA ONEEC.

Lenengoa, ez daquianari iracastea.

Bigarrena, bear dabenari conseju ona emotea.

Irugarrena, utseguin dabena zuzendutea.

Laugarrena, atsacabada, edo injuriac parquetea.

Bostgarrena, tristeac consolatea.

Seigarrena, projimuaren argaltasunac pacienciaz eroatea.

Zazpigarrena, biciac, eta illacgaitic Jaungoicuari erregututea.

GORPUTZARI DAGOCAZANAC DIRA ONEC.

Lenengoa, gueissuac, icustau, edo bisitetea.

Bigarrena, gose danari jaten emotea.

Irugarrena, egarri danari edaten emotea

Laugarrena, catiguai urten bidea emotea.

Bostgarrena, billosa jaztea.

Seigarrena, bidezco pobreai ostatu emotea.

Zazpigarrena, illac enterratea.

I. Cegaitic deriche mizericordiazcoac?

E. Cegaitic juzticiaz zor ez direan.

I. Nos zor dituguz pecatubaren bean?

E. Guizon jaquitunen erechian estutasun astunac direanean.

## LAUGARREN PARTEA
### emen espliquetan da cer artu bear dogun, edo dala sacramentuac.

Icusi dogu celan daquizun, cer sinistu, cer escatu, ta cer eguin bear dozun. Dacuscun, celan daquizun cer artu bear dozun, ta da azqueneco gauzea. Esan eguizuz Sacramentuac.

Eleissa Ama Santearen Sacramentuac zazpi dira. Lenengo bostac dira bear bearrac izatez edo borondatez, eta oneec baga ecin guizona salbau leiteque, isten badituz desprecioz: edo ecetan ez euquiz. Beste biac dira borondatezcoac.

Lenengoa, Bateoa.

Bigarrena, Confirmaciñoa.

Irugarrena, Confesiñoa.

Laugarrena, Comuniñoa.

Bostgarrena, Oleaciñoa.

Seigarrena, Ordena, edo Eleis guizontzea.

Zazpigarrena, Escontzea, edo matrimoniñoa.

I. Ce gauza dira Sacramentubac?

E. Dira Cristo gure Jaunac emonico señale aguiri batzuc, euren bitartez bere gracia ta birtuteac guri emoteco.

I. Ce gauza da gracia?

E. Da Jaungoicozco isate bat eguiten dabena guizona Jaungoicoaren seme, ta ceruaren eredero, edo jaube guei.

I. Ce birtute emondarue Sacramentuac graciagaz batera?

E. Batez bere iru Teologal, edo Jaungoicoagazcoac.

I. Ceintzuc dira?

E. Fedea, Esperanzea ta Caridadea.

I. Cer da Fedea?

E. Icusi ez doguna sinistutea, Jaungoicoac alan eracutsi dabelaco.

I. Cer da Esperanzea?

E. Icharotea Ceruco gloria Jaungoicoaren graciaz, ta gure eguite onen bidez.

I. Cer da Caridadea?

E. Jaungoicoa ametea gauza guztien gañean, ta gueure progimoa gueure burua leguez eurai eguiten deutseegula, eurac gueuri eguitea guraco guenduqueana.

I. Cetaco da Bateoco Sacramentua?

E. Pecatu original, edo amaren sabeleti datorcuna, ta besteric balego bere, parcatuteco.

I. Cer da pecatu original, edo jatorrizcoa?

E. Lenengo gurasoetaric datorcuna, ceñean sortuten garean guztioc (es Jesucristo, ez da bere Ama Maria guztiz Santisimea.)

I. Cetaco da Confirmaciñoco Sacramentua?

E. Bateoan artu genduan fedean sendoago eguiteco.

I. Certaco da confesiño edo penitenciaco Sacramentua?

E. Batcatu ezquero eguiñico pecatuac parcatuteco.

I. Ce pecatu dira orrec?

E. Mortalac eta benialac.

I. Pecatu mortala cer da?

E. Da esatea, eguitea, pensau edo gura izatea cerbait Jaungoicoaren leguearen contra ganza astun, edo andian.

I. Cegaiti dericho mortala?

E. Cegaitic ilten daben pecatu au eguiten dabenaren arimea.

I. Ceimbat parte ditu confesiñoac pecatu mortala queduteco?

E. Iru, biotzeco damuaria, aozco autortute edo confesiñoa, eta eguinacaz ordea biurtute, edo satisfaciñoa.

I. Eta pecatu mortala eguiten dan guztian confesau bear da bereala parcatu daquian?

E. Ondo lizate; baña ez da premiñazco gaucea.

I. Cer eguin biar dau bada?

E. Artu bere pecatuen damuari eguiazcoa, onduteco gogo senduaz, ta confesadu Eleissa Ama santeac aguinduten dabenean.

Ez da onegaz esan gura icharon daguiala belurano confesau baga pecatu mortalean dagoanac. ¡Noc esango deuscu illgo ezgareala beingo, edo uste baguean confesetaco eperic baga! Celango arriscuan ez dagoz bada egun baten baño ezpaliz bere pecatu mortalean dagozanoc! Dino bada liburuchu au erderaz eguin ebanac, luza-

tuaz confesiñoa Eleissa Ama santeac aguinduten daben arterańo, ez dagoala pecatu barriric. Baña noc izan bear dau ain zoroac, cein da egongo dan ill osoetan garbitu baga bere arimea, ta condenetaco peligroan! Confesiño baga gracian jarteco biarda damuari sendo, ta Jangoicoaren amore garbi, edo caridadeti, datorrena. Eta au guztiz gacha da, ta au daucana, ez da egongo confesiñoa luzatuten.

I. Cer da pecatu beniala edo ariña?

E. Pecatu mortalaren prestaera bat.

I. Cegaitic dericho beniala?

E. Cegaitic orretan guizona errez jauzten dan, eta errez parcatuten jacan.

I. Ceimbat gauza gaiti parcatuten da?

E. Bederatzigaiti.

I. Ceintzuc dira?

E. Lenengoa, meza entzutiagaiti.

Bigarrena, comulgueteagaiti.

Irugarrena, confesiño generala, edo ni pecataria debociñoz ta pecatuen damuaz esanagaiti.

Laugarrena, obispoaren bendeciñoagaiti.

Bostgarrena, ur bedeincatuagaiti.

Seigarrena, ogui bedeincatuagaiti.

Zazpigarrena, Aita gurea esanagaiti.

Zortzigarrena, sermoia enzuteagaiti.

Bederatzigarrena, Jaungoicuari parca esque dagocala bularra joagaiti.

Baña ez da iñoz pecaturic chicarrena bere parcatuten damu santua baga.

I. Comuniñoco Sacramentu guztiz santuan cer artuten dogu?

E. Cristo Jaungoico, ta guizon eguiazcoa, ta Altaraco Sacramentuan berbera benetan dagoana.

I. Da cetaraco da Comuniñoco Sacramentua?

E. Artuten badogu beardan prestaeracaz izan deiñ gueure arimentzat mantenimentu edo janaria, ta guertu daigun gracia.

I. Cetaraco da Oleaciñoco Sacramentua?

E. Iru gauzataraco.

Lenengoa, igarorico bicitza donguearen ondoquin, ta emparanac quenduteco.

Bigarrena, gaisqueñen tentaciñoen contra arimiari indarra emoteco.

Irugarrena, emoteco gorputzari osasuna arimaco calteari espada.

I. Cetaraco da Ordeaco Sacramentua?

E. Consagrau, edo ordenduteco Eleisseari dagocazan leguezco Ministro onac, celan direan, Sacerdotenc, Ebangelioco, ta Epistolacoac.

I. Cetaco da Ezcontzaco Sacramentua?

E. Esconduteco, eta ezconduai gracia emoteco, baquian bici daitezan ta umeac Ceruraco aci daguiezan.

## PECATU CAPITALAC

### EDO BURUTARRAC ZAZPI ONEC DIRA.

Lenengoa, Soberbia edo Andiustea.
Bigarrena, Abaricia edo Cequenqueria.
Irugarrena, Lujuria edo Loiqueria.
Laugarrena, Asarrecnuzea.
Bostgarrena, Guleria edo Salotasuna.
Seigarrena, Enbidia edo Ondamua.
Zazpigarrena, Naguitasuna.

I. Cegaitic emoten deustezu pecatu onei capital edo burutarren icena, gueyenez mortalen icena daruen ezquero?

E. Emoten jaque capitalen icena cegaitic dirian beste bicioen buru, iturri ta sus-

trayac leguez; ez jatorque barriz aiñ ondo mortalen icena, bada ascotan benialac baño ez dira.

I. Noz dira mortalac?

E. Jaungoicoaren ta lagunaren caridadea austen dabenean.

I. Noz baña yazoten da ori?

E. Eurac gaitic austen danean gauza pisuco edo astunean Jaungoicoaren eta Eleissearen mandamenturen bat.

I. Cer da Soberbia edo Andiustea?

E. Besteac baño gueyago izan gura erabagaco bat.

I. Cer da Abaricia edo Cequenqueria?

E. Lurreco ondasunen gogo edo gurari erabagaco bat.

I. Cer da Lujuria?

E. Gorputzeco atseguiñ loi edo zantarren gurari erabagaco bat.

I. Cer da Iria edo Asarrecunzea?

E. Iñori gach eguiteco gogoa.

I. Cer da Guleria?

E. Jateco eta edateco gogo erabagaco bat.

I. Cer da Enbidia edo Ondamua?

E. Besteen ona icusi eciña.

I. Cer da naguitasuna?

E. Gauza onetaraco arimaco ta borondatezco atzerapena.

## ZAZPI BICIO ONEN CONTRA DIRA

### ZAZPI BIRTUTE.

Soberbiarea contra Umiltasuna.

Cequenqueriaren contra Prestutasuna.

Lujuriaren contra Castidade edo Garbitasuna.

Asarrecunzearen contra Paciencia edo onean eruatea.

Guleriaren contra jan ta edanean beguiratua izatea.

Enbidiaren contra Caridadea edo lagunaren ondogurea.

Naguiqueriaren contra gauza onetaraco prestasuna.

## IGUES EGUIN BEAR DEUTSEGUN

### ARIMEAREN AREBIOAC ONEC DIRA.

Lenengoa, Mundua.

Bigarrena, Demoniñoa.

Irugarrena, Araguia.

I. Celan igues eguiten da Munduaganic?

E. Bere arroqueri ta andigurac ecetan ez artuaz.

I. Celan Demoniñoaganic?

E. Oraciño ta umiltasunaz.

I. Celan Araguiaganic?

E. Au eci bear da gorputzari gurariac ucatuaz ta necatuaz, disciplina, ta baraubacaz. Au da areriorie andiena, cegaitic ecin quendu guiñai gueuganic: Mundua ta Demoniñoa bai.

## BIRTUTE TEOLOGAL EDO
### JAUNGOICOAGANUNZCOAC IRU DIRA.

Fedea, Esperanza ta Caridadea.

## BIRTUTE CARDINALEAC
### DERICHENAC LAU DIRA.

Prudencia, Justicia, Sendotasuna ta Templancea.

## GORPUTZAREN SENTIDUAC
### BOST DIRA.

Beguiacaz ecustea.
Belarriacaz enzutea.
Auagaz gusto artutea.
Suurragaz usain eguitea.
Escuacaz ucututea.

I. Cetaco emon euscuzan Jaungoicoac sentidu ta gorputzeco beste zati guztiac?

E. Gauza guztietan guztiacaz bera serbidu guinayan.

## ARIMEAREN ALMENAC
### IRU DIRA.

Memoria, Entendimentua ta Borondatea.

I. Cetaco emon euscun Memoria?

E. Gomuta gaitean beragaz, ta berac eguiten deuscuzan mesedeacaz.

I. Cetaraco Entendimentua?

E. Gure Jauna ezagutu, eta beragan gogoa euquiteco.

I. Cetaco Borondatea?

E. Ontasunic andiena leguez bera ameetaco ta laguna beragaiti.

## ESPIRITU SANTUAREN
### DOEAC ZAZPI DIRA.

Lenengoa, Jaquintasunaren doea.
Bigarrena, Adimenaren doea.
Irugarrena, Consejuaren doea.
Laugarrena, Ciencia edo gaucen aitutearen doea.
Bostgarrena, gauza onetaraco Sendotasunaren doea.
Seigarrena, Erruquiaren doea.
Zaspigarrena, Jaungoicoaren bildurraren doea.

## ESPIRITU SANTUAREN FRUTUAC
### AMABI DIRA.

Lenengoa, Caridadea.
Bigarrena, Baquea.
Irugarrena, Biotzeco anditasuna.
Laugarrena, Erruquitasuna.

Bostgarrena, Fedea.

Seigarrena, Continencia edo moderaciñoa.

Zazpigarrena, Espirituco poza.

Zortzigarrena, Paciencia edo eroapena.

Bederatzigarrena, Ontasuna.

Amargarrena, Mansotasuna.

Amaicagarrena, Modestia.

Amabigarrena, Castidadea.

## BIENABENTURANZA
### EDO ZORIONTASUNAC ZORTZI DIRA.

1 Zorionecoac espirituz pobre diranac, cegaitic eurena dan ceruetaco erreinua.

2 Zorionecoac mansoac, cegaitic jaubetuco diran lurraz.

3 Zorionecoac negar eguiten dabeenac, cegaitic poztuac izango direan.

4 Zorionecoac justiciaren gose ta egarri direanac, cegaitic aseac izango direan.

5 Zorionecoac erruquior edo misericordiosoac, cegaitic alcanzauco dabeu misericordia.

6 Zorioneco biotz garbicoac, cegaitic icusico daben Jaungoicoa.

7 Zorionecoac baque zaleac, cegaitic icentatuac izango direan Jaungoicoaren semeac.

8 Zorionecoac onac direalaco perseguiduac direanac, cegaitic eurena izango dan ceruetaco erreinua.

I. Cer esan dogu orain?

E. Zortzi Zoriontasun edo Bienabenturanzac.

I. Cer gauza dira oneo?

E. Espiritu Santuaren birtute eta bere doe onenac.

I. Nortzuc dira espirituz pobreac?

E. Onra ta aberastasunic laburrenetan bere biotza erasten ez dabeenac.

I. Nortzuc dira manso edo otzanac?

E. Aserreric ez dabeenac, ezta bere aserreraco movimenturic.

I. Celan lurragaz jaubetuco dira?

E. Euren buruen jaube izanagaz.

I. Nortzuc dira negar eguiten dabenac?

E. Atseguiñic laburrenac bere isten dituezanac.

I. Nortzuc dira justiciaren gose ta egarri direanac?

E. Aleguiñaz ecetan utsic eguin gura ez leuqueenac.

I. Nortzuc dira erruquior edo misericordiosoac?

E. Atzeaçaz bere biotz guztiz biguna dabeenac.

I. Nortzuc dira biotz garbicoac?

E. Euren pasiñoeac eciten dituenac.

I. Nortzuc dira baquetsuac?

E. Euren buru ta besteenai baquea emon daruaqueenac.

I. Nortzuc dira Justiciagaiti perseguituac direanac?

E. Sendo dagozanac gauza onetan munducoen gach erechiacaz atzeratu baga.

I. Cegaitic emoten jaquee zoriontasunen icena?

E. Cegaitic euretan dagoan lurrean zorionecoa izatea ta Ceruaren esperanza benetacoa.

M.—Jaungoicoac ara eroan gaiquezala guztioc. Amen.

## CONFESIÑO GENERALA

Ni pecatari au confesetan nayaco Jaungoico guztiz poderosoari, Santa Maria Birgiñeari, San Miguel ainguerruari, San Juan Bautisteari, San Pedro ta San Pablo apostoluai, Santu guztiai, ta ceuri, neure arimaco aita; cegaitic pecatu asco eguin dodan pensamentuz, berbaz ta obraz, neure erruz, neure erruz, neure erru guztiz andiaz. Agaiti erregututen deutsat Santa Maria beti Birgiñeari, San Miguel ainguerruari, San Juan Bautisteari, San Pedro ta San Pablo apostoluai, Santu guztiai, ta ceuri, neure arimaco aita erregutu daguiezula nigaiti neure Jaun ta Jaungoicoari. Amen.

## ACTO CONTRICIÑOZCOA

Neure Jesucristo Jauna, Jaungoico ta guizon eguiazcoa, neure Criadorea eta Erredentorea, zareana zarealaco ta ametan zaitudazalaco gauza guztien gañean, da-

mu dot biotz guztiric zeu ofendidua, propositu sendo bategaz ez gueyaco pecaturic eguiteco, neure pecatuac confesetaco, ta cumplietaco emoten jatan penitencia; opa deutsudaz Jauna, neure bicitza, eguite ta neque guztiac neure pecatuen orderaco, ta icharoten dot ceure ontasun ta erruqui amai bagaan, parcatuco deustazuzala ceure odol precioso, pasiñoe ta eriotzagaitic, ta emongo deustazula gracia bicitzia obetuteco, ta zeu serbietan irauteco neure eriotzaco orduraño. Amen.

---



ENCARNACIÑOCO MISTERIOA

edo Jaungoicoaren semea celan guison eguin zan.

I. Cetan dago Encarnaciñoco misterioa?

E. Trinidade guztiz santaco bigarren personea, edo Aita Eternoaren Seme Jaungoicoa, guizon eguitean, Ama Birgiñearen sabel garbian, ez guizonaren bidez, ezpada Espiritu Santuaren bitartez ta birtutez Ama beti gueratuten zala Birgiña garbi

Semea jayo baño leenago, jayoqueran ta jayo ezquero.

I. Cer eguiñ eban Espiritu Santuac?

E. Lau gauza onetan obeto aditu oi direanac.

Lenengo, Ama Birgiñaren odol garbiagaz eguin edo pormau eban gorputza.

Bigarrena, ecebere eceti eguin edo criadu eban arimea.

Irugarrena, gorputza ta arimea alcarregaz batu edo unidu cituan.

Laugarrena, une edo instante atan bertan Jaungoicoaren Semeac artu cituan beregan, batuaz gorputz ta arimea, ta len Jaungoicua zana gueratu zan guizon eguiñic Jaungoicua izatea galdu baga.

I. Cegaitic esaten da obra aundi an eguin ebala Espiritu Santuac iru Personac eguin beeben?

E. Cegaitic dan amodiozco Eguitada edo Obrea, ta amodioa ezarten jaco Espiritu Santuari, Aitari poderea, ta Semeari jaquituria leguez. Baña bacarric Semea gueratu zan guizon eguiñic; oneguitic Jesucristogan dagoz naturaleza, entendimen-

tu ta borondate bi, bata Jaungoicoa dalaco, ta bestea guizona dan aldeti.

I. Ceimbat persona dagoz Jesucristogan?

E. Bat bacarric, ta bera Jaungoicoa dan aldeti. Gauza bat da Naturalecea ta beste bat Personea. Edocein guizonec daucaz beregan naturaleza desbardin edo diferente bi, bata gorputza, bestea arimea. Eta celan gorputz ta arima oneec, bi izanic, eguiten daben Persona bacar ta errazoe duna, alan Jaungoicoa ta Guizona dira Jesucristo bat edo Persona bat naturaleza bigaz.

I. Badau Jesucristoc Aitaric edo Amaric?

E. Jaungoicoa dan aldetic bacarric dau Aita, ez Amaric, eta Guizona dan aldeti dau Ama, ez Aitaric.

I. Cegaitic esaten da bada San Josepe Jesucristoren Aita?

E. Ez zan San José Jesusen Aita benetacua, ezpada Aita ordecoa, ta guizonen erechicoa, bada Birgiñea beti gueratu zan Doncella garbia.

I. Noscoa da Jesucristo?

E. Jaungoicoa dan aldetic beti beticoa, Aita Eternoa ta Espiritu Santua leguez; baña guizona dan aldeti, Ama Birgiñea esquerococa.

I. Nun dago orain Jesucristo?

E. Jaungoicoa dan aldeti nun nai edo leou guztietan; baña Guizona danez, bacarric Ceruan ta altaraco Sacramentu Santuan.

## SACRAMENTU SANTU ALTARACOAREN esplicaciñoa.

I. Cer dago Altaraco Sacramentu Santuan?

E. Dago Jesucristo gueure Jauna, Jaungoico ta Guizon berbera ceruan orain dagoana, ta len egon zana Ama Virginearen sabel garbian, ta gueure amorez curutzean bicitzia emon ebana.

I. Cer dago Hostian consagradu baño leenago?

E. Gari urunagaz eguiñico ogui pusca bat.

I. Eta Sacerdoteac consagraciñoco berbac bere gañera esan ezquero, cer dago?

E. Dago Jesucristoren gorputza: baña celan gorputz au dagoan biciric (bada bizcortu zan Cristo gueyago ez illteco) ta gorputz bici batec euqui biar dituzan arimea, ta odola, agaitic dagoz Hostian gorputzagaz batera, arimea, ta odola, ta guizon bici bati dagocazan gauza guztiac. Besteti Jesucristoren guizon izatea ecin egon leite Jaungoicoaren Semearen persona baga, ez da Persona Jaungoicozco au bere Aita ta Espiritu Santu baga, agaiti dagoz Hostian, Jesucristoren gorputza, odola, arimea, beragan dituala, eta Aita Eternoa ta Espiritu Santua.

I. Cer dago calizan consagradu baño leenago?

E. Ardau pusca bat ur tanta bategaz.

I. Eta consagradu ezquero cer dago?

E. Dago Cristoren odola. Baña celan odol biciac escatuten dituzan gorputza ta arimea, Calizan bere dagoz gorputza ta arimea, ta Hostian dagoen guztia. Asco da nequezaleentzat onembeste jaquitea.

I. Sacramentu onetan icusten ete da Jesucristo?

E. Ez jauna; icusten dira oguiaren ichura edo irudiyac, ta Calizan ardauaren irudi edo ichuraa; baña consagraciñoco berbac esán ezquero, ez dago, ez benetaco ogui, ez benetaco ardauric; ezpada Jesucrizto guztia ogui ta ardao irudiyen azpian.

I. Hostia consagradua erdibitu edo apurtuten danean, erdibituten eta apurtuten ete da Jesucristo?

E. Ez jauna, eta dago Jesucristo Hostia guztian, ta guztia Hostiaren apurric chicarrenean.

I. Cembait gáuza bear dira ondo comulguetacoꝰ

E. Iru. Lenengoa jaquitea cer artuten dogun. Bigarrena barau osoa edo aurrecé gaberditi comulgau osteraño ez ecer jan, ez ecer edatea. Irugarrena arimaco garbitasun edo Jaungoicoaren gracia.

I. Pecatu mortalean comulguetan danac artuten dau Jesucristo?

E. Bai, baña ecarten deutsa bere ari-

miari calte asco, ta eguiten deutsa Jesucristori injuria guztiz baltz ta audiya, ta artuco jaco contu guztiz estua dongaro tratau dabelaco bere gorputz ta odola.

I. Cer eguin bear dau pecatu mortalen bat eguin dabenac comulgau baño lenago?

E. Garbiro edo ondo prestau ta eldu Sacramentu Santu confesiñoecora, orain iracatsico dogun leguez.

## CONFESIÑOCO SACRAMENTUAREN gañeco iracasteac.

I. Ceimbat gauza bear dira, ondo confesetaco?

E. Bost jauna, Esaminea, Damua, Propositua, Confesiñoa ta Satisfasiñoa.

I. Esan eguizuz obeto adituco direan leguez?

E. Lenengoa, bacochac aleguiñaz bere pecatuac burura ecartea.

Bigarrena, artutea damu sendoa, ta Jaungoicoagandic datorrena, pecatu eguin dabelaco.

Irugarrena, eruatea gogo sendo bat ez gue-

yago pecaturic eguiteco, ta alde eguiteco pecatu ocasiño ezagun ta urrecoetati.

Laugarrena, esatea confesoreari pecatu mortal guztiac; jaquiñac jaquiñac leguez, ta dudacoac dudacoac leguez, gueitu, ez guichitu baga.

Bostgarrena, confesoreac emon deutsan penitencia zucen eguitea.

I. Cembat dempora bear da Esamiñea eguin edo pecatuac gogora ecarteco?

E Ez dago dembora jaquiñic, celan dan bacocharen bici modua, ta burua, ta confesau zala ceimbat dempora dan. Confesiño general bicitza guzticoa, edo urteren batzuetacoa, ta premiñazcoa bada dempora gueyago bear dau beste languan baño.

I. Celan obeto eguingo da Esamiña au?

E. Jaungoicoaren legueco ta Eleisaco Mandamentuac bein banaan igaroaz, itoca baga, baña ez burua austeraño. Beguiratu bear dira bere opicio ta estaduco obligaciñoac.

I. Cer da pecatuen damu edo dolorea?

E. Da Jaungoicoa ofendidu dabelaco atsecabe, ta pecatuen contraco gorrotoa.

I. Ceimbat modutacoa da?

E. Bitacoa: Contriciñoa ta Atriciñoa.

I. Cer da biotzeco contriciñoa?

E. Jaungoicoa ofendidu dabelaco damuaria bere ontasunagaiti, edo cegaitic dan ain ona ta berez amagarria.

I. Cer da biotzeco atriciñoa?

E. Jaungoicua ofendidu dabelaco damuaria pecatuen ezaintasunagaiti, edo cegaitic pecatu mortalagaz ceruco gloria galdu ta infernua betico irabazten dan.

I. Damu oneen artean cein da onena?

E. Jaungoicoaren amore garbiti datorrena; au da contriciñoa. Contriciño eguiazco, edo amore uts edo garbiti datorrena, ecin egon leite pecatu mortalaz ta alan contriciñoa daucana, jarten da Jaungoicuaren gracian sacerdotearen absoluciñoa artu baño bere leenago. Alan bere Santa Maria Magdalenac beste Jaungoicuaren amore artuco baleu bere, gueratuten da pecatu mortalac confesoreari aguertuteco obligaciñoaz, aldabela. Baña bildurreti datorren damuariac, edo atriciñoac, ez dau berez iñor gracian iminten; bacarric prestetan dau biotza, Sa-

cramentu Confesiñocoan gracia artuteco.

I. Cegaz comparadu edo bardinduten da contriciñoa, ta cegaz atriciñoa?

E. Bata ume on batec aitari deutsan amoreaz, ta bigarrena otsein edo serbitzari leyal batec artu leiquean atsecabeaz ugazabari aserra erazo deutsanean. Aita bati umeac bere itsutasunean ezarri badeutsa escua, gomuta dedinean cer eguin daben gueyago damututen da bere aita dalaco ofendidua, aitac echeti bota ta herencia quendu daiquealaco baño. Damutuco lizate, ezpaleu bere aitac cer emon, ez cegaz castigau. Aitari artuten deutsan interes bagaco onirichi, ta maitetasuna, da asco damu emoteco. Serbitzariaren damu ez da berez ain fiña, ona bada bere. Maite badau bere ugazaba, edo bere oguia janac, edo sari ona artuac, dacar damu artutera ofendidu dabelaco, errazoiaz da bildur echeti bota ez daguian.

I. Badago eguiazco damu ta propositu bear dan leguezcoric pecatuaren bide edo ocasiñoe urrecoetati alde eguin gura ezpada?

E. Ez celan bere, ta bai ao utsecoa ta beguitandua.

I. Ori orrelan izanic, confesiño donga asco eguingo da?

E. Guztiz asco. Propposituac izan bear dau sendoac, prest egon bear da leenago galdutera onrea, osasuna, ondasun guztiac ta bicitzea, bera pecatu mortal bategaz Jaungoicoa ofenditu baño. Baña ez darue ascoc eta ascoc proposito ain sendoric. Agaiti ain erraz biurtuten dira lengo ocasiño eta pecatuetara. Oñean ordiqueria, ostuac biurtu nai eza, ta aimbeste pecatu.

I. Celan confesadu biar dira pecatuac?

E. Osoz, guichitu, ta edertu baga.

I. Pecatu mortalen bat ezagüeraz, ta lotsaz confesau baga isten dabenari parquetan ete yacaz confesadu dituan beste pecatuac?

E. Ez Jauna, ta gueituten dau sacrilegioco pecatua lengoen gañera, ta comulguetan bada alan, beste sacrilegio icaragarri bat. Ecin salbadu leite pecatua aguertu baga santu guztiac baño penitencia gueyago eguingo baleu bere.

I. Eta asco ete dira lotzaz pecatua ucatu edo issildu edo guichituaz condenetan direanac?

E. Guztiz asco. Umetan eguin oy dira loiqueria ez guichi, edo mutilchuac mutilchuacaz, edo nescatillachuac alcarregaz, edo aec oneecaz. Cerbait aci direanean, etorten jaqueez gogora. Lotsatuten dira gomutauta, confesoreari esateco igaroten ditube confesiño asco ecin esanda. Dabiltz duda andietan pecatu bacirean; edo ezbacirean: duda onegaz duaz urteac, gueitu confesiño dongaac, ta joten dabee ascoc infernua, ta confesau daruez errazago asi ezquero eguin dituen pecatu ezañagoac.

I. Cer eguin bear dabee salbeetaco, urteren batzuetan, edo bicitza guztian dongaro confesau direanac, edo pecaturen batzuc lotseaz aguertu baga, edo ocasinoe dongueetan iraun dabeelaco, edo dan leguez dala damu ta propositu charracaz confesadu direalaco?

E. Eguin bear dabee confesiño general edo dempora guzti atacoa, ta au eguin artean, ecin eguin leique ez confesiñoe, ez comuniñoe, onic.

I. Eta lotsa andia daucanac errico confesore ezagunari aguertuteco lengo pecatu

lotsaz gordeac, ta eguin dituzan confesiño ta comuniñoe dongaac, cer eguin bear dau?

E. Billatu campoco erri baten bada bere, nori, ondo esan; ta neque au artu bear da arimaco salbaciñoagaiti. Baña billatu bear dau confesore contuzco, icen oneco, ta jaquituna, ceñec obeto, artu, ta lagunduco deutsan ondo confesetan, ardura guichico batec baño.

I. Beraz ez dago achaquia, edo escusaric pecatuac zucen ez confesetaco?

E. Ez; ta alan, ondo confesetan ez dana, bere erruz ta guraz condenauco da.

I. Celan ondo prestauco da zucen confesetaco?

E. Pensadubaz lecu bacar baten, ceimbat juacon ondo confesetan, eta irago beragan, confesetara noa! Bay ta Jesucristoren odol preciosoagaz neure arimea garbietara.

I. Eta ondo da sarri confesetea?

E. Celan bere dan sarri eguiten dan gauzea, errazago, ta obeto eguiten da.

I. Comulgadu baño leenago, confesiño

ondo eguiñaz ostean, celan ondo prestaduco gara irabazi andiac ateratceo?

E. Pensadubaz bacarren, ta biotz batuaz, nor artutera guazan, celango amoreaz jatorcun, etc.

I. Celan eldu bear da altara aurrera?

E. Soñeco decenteacaz, arrotasun baga, beguiac erabilli baga bateric bestera, biotz batuaz, lotsa andiaz, amorea biztuteco gracia escatuaz.

## BAUTISMOCO SACRAMENTUA

I. Noc bateatu lei estutasun orduan, seiña Eleissara eroateco eperic ez dagoanean, eta ezpadago eleiz guizonic?

E. Orduan bateatu bear dau ondoen daquienac, ta ezpadago beste ondo bateatuten daquianic gurasoac baño, bateatu leique onec eceren calte baga.

I. Celan ondo bateuten da?

E. Ura ezarriaz albadedi burura; ezpabere gorputzeco zatiric andienera, ta esanaz ura botateco demporan Jesucristoc eracatsi euzcuzan berba onec: «Nic batea-

tuten zaitudaz Aitearen ta Semearen, ta Espiritu Santuaren icenean».

I. Eta seiñac emoten ezpaditu bici danaren señaleac, cer eguin?

E. Alangoan esaten da: «Bici bazara, nic bateatuten zaitudaz Aitearen, ta Semearen, ta Espiritu Santuaren icenean,» ta esatean ezarri ura, ta ur bedeincaturic bear bestean ta erara ezpadago, educein ur garbigaz bateatu bear da.

I. Ondo litzatee guztiac jaquitea celan ondo bateatuten dan?

E. Celan bere litzatean; arima ascori juaco salbaciñoa, ta au da guztiz bearra baserrietan.

## ACTO FEDECO, ESPERANZACO
### ta Caridadeçoac.

Sinistuten dot Aita Jaungoicoagan.

Sinistuten dot Semea Jaungoicoagan.

Sinistuten dot Espiritu Santu Jaungoicoagan.

Sinistuten dot Jaungoico bacar bat iru Personetan.

Sinistuten dot Jaungoicuaren Seme bigarren Personea Ama Birgiñearen sabel garbian Espiritu Santuaren graciaz guizon eguinzala, jayo, ta gu salbeteagaiti Curutzean ill, biztu, ta Cerura igon ebala.

Sinistuten dot Jaun au azquenengo juicioan, biciac, eta illac juzguetara etorrico dala; onai betico gloria, ta gaiztoai betico infernua emongo deutseela.

Sinistuten bere dot Eleissa Ama santeac iracasten deustan guztia, ta fede onetan bici, ta ill gura dot.

Esperetan dot Aita Jaungoicoagan.

Esperetan dot Seme Jaungoicoagan.

Esperetan dot Espiritu Santu Jaungoicoagan.

Esperetan dot Jesucristoren merecimentu, ta bere graciaz eguiten ditudan obra onac gaiti, emongo deustala onian irauteco gracia, ta guero betico gloria.

Ametan dot neure Jaungoicoa neure biotz guztiaz, ta gauza guztien gañian, cegaitic dan guztiz ona, ta amagarria, ta orain artian amau ezdodalaco damu dot biotz guztitic.

Ametan bere dot neure progimoa neure burua leguez, Jaungoicuaren amorearren. Amen.

---

Gossian oetic jagui ta bertati Jaungoicoari fede bici bategaz beguiratu, ur bedeincatua artu, curutze santiaren eguin, eta egun ataco obrac opatuteco

## ORACIÑOA

Esquer andiyac eta alabanzac emoten deutsudaz, neure Jaungoicoa, ccereceti eguin nozulaco, cristiñau eta Jesucristoren odol preciosoagaz erosi nozulaco, eta orainguiño ceure escu santuetatic artu dodazan mesede guztiac gaiti.

*Aita guria ta Abe Marija.*

Opa deutsudaz, Jauna ceure gloriaric andiyeneraco, gaurco nere pensamentu, berba neque ta obra guztiac neure Jesus onaren odol ta merecimentuacaz batera.

*Aita guria ta Ave Mariya.*

Jauna, neure pecatu guztiyen damua daucat, ceu gauza guztiyen gañean amatan zaitudazalaco: borondate sendo bategaz, ceure graciya lagun dodala, Zeu ofendidu baño leenago neure bicitzia galdu gura dodalaco, baita artuten dot gogoa irabasteco gaur dirian parcamen guztiac neure pecatuen satisfaciñoraco ta Purgatoriyoco arimen oneraco: eta orretaraco opa bere deutsudaz gaurco neure neque, biar, atzacaba, ta pena guztiyac, eta obeto artuac izan ditezan, ezquiñeten deutsudaz Ama Birgiñearen escuetati, ceiñeri esquetan deutsadan bere Contzeziño garbiyagaitic, ta bere doloriac gaitic, gorde naguiala gaur ta beti gach guztietatic, bein bere ceure graciya galdu eztaidan. Amen.

*Iru Abe Mariya Ama Birgiñeari.*

## AINGUERU GUARDACOARI ORACIÑOA

Neure Ainguerú guardaco maitia, gorde naguizu gaurco nere pausu, berba, ta gauza guztiyetan, goitu ez naguiyan neure

areriyoac; eguin eztaguidan ceure aurrian neure Jaungoicoaren contraco gauzaric: neure oraciño, ta obra onac eroan eguizuz Jaungoicoaren tronuaren aurrera, ta alcanzadu eguidazu guero eriyotza on bat. Amen.

*Aita guria ta Abe Mariya.*

## SAN JOSEPERI ORACIÑOA

Neure Aita San Josepe bedeincatu gozoa: Ama Birginaren bici lagun eguiyazcoa; Jesus guztiz gozoaren aita ordecoa; eta eriotzaco orduan dagozan tristien amparu segurua: nic artuten zaitudaz egun onetan neure bitarteco ta defensoretzat; lagun eguidazu, bada, gaurco ta neure bici guztico obra, berba ta gauza guztiyetan, dirianac izan ditezan neure Jaungoicoaren gloriyaraco; eta neure eriyotzaco ordu estuan lagundu eguidazu, eta eroan eguizu neure arimia Jaungoicoa alabetan ceugaz batera, betico glorian. Amen.

*Aita guria ta Abe Mariya.*

Gaubian, oian sartu baño leenago, ur bedeincatua artu, curutze Santiaren eguin eta guero esango direan

## ORACIOAC

Neure Jaungoicoa, emon eguidazu graciya gau au ceu ofendidu bagaric igaroteco, eta gorde naguizu gauza deunga guztietatic. Amen.

Jesus, Maria ta Josepe.

*Aita guria ta Ave Mariya.*

## AMA BIRGIÑIARI ORACIÑOA

¡O Birgiña Maria, Jaungoicoaren Ama maitia eta pecatari triste guztiyen misericordiyazco Ama! lagundu eguidazu gau onetan, gorde naguizu, desamparadu baga neure eriotzaco orduan.

*Iru Abe Mariya.*

## AINGUERU GUARDACOARI ORACIÑOA

Neure Aingueru Guardacoa lagundu eguidazu, eta gau onetan gorde naguizu:

Jesus, Maria, Josepe, socorridu naguizue. Jaungoicuac emon daigula bere graciya; eta guero betico gloria. Amen.

*Aita gurea ta Abe Mariya.*

## MAIYA BEDEINCATUTECO MODUA

Aitearen eta Semiaren eta Espiritu Santuaren icenian. Amen.

Neure Jauna eta Jaungoicoa, gueure icharopena dago ceugan, eta zuc emoten dozu bere demporan yateco biar doguna. Ceure escua zabaldu, ta guztiyoc bendeciñoz betetan gozuz.

*Aita guria, ta Abe Mariya, ta guero esango da.*

Ondasun guztieyen emollia, eta gueure Jauna; ceure escuetatic artu, eta yan biar dogun guztia zuc bedeinzatu eguizu, Jesucristo ceure Semiagaitic: Aitac eta Semiac, eta Espiritu Santuac guztiyoc bedeincatu gaguiyezala, eta bere gloriaco maira betico eroan gaguiyezala. Amen.

## YAN EZQUERO EZQUERRAC EMOTECO.

Aitaren, eta Semiaren, eta Espiritu

Santuaren icenian. Amen.

Esquerrac, eta alabanzac emoiten deutsuguz, Jauna, orain ta beti eguin deuscuzan mesede guztiyacgaitic. Ceuganic gueure gañera etorri dan bendeciño, ta mesede onegaitic mundu guztiyac alabau zaguizala. Amen.

*Aita guria ta Abe Mariya.*

Gueure onguin guztiyai, Jauna, pagau eguiezu ceure icen santua gaitic, eta arima fiel guztiyac eroan eguizuz ceu alabetan. Amen.

*Ave guria ta Abe Mariya.*

Arima fiel guztiyai Jaungoicoac emon daguioela betico descansua ta gueuri emon daigula bere graciya ta baquia.

Emen batu gaituzan Jaunac, batu gaguizala guztiyoc Ceruco glorian. Amen.

## ABE MARIYETACOA

℣. Ainguеruac barri onac Ama Birgiñeari emon eutsazan.

℟. Eta Espiritu Santuaren graciyaz

Jaungoicoaren Semia bere sabelian sortu zan.

*Abe Mariya.*

V. Ara emen Jaunaren serbitzaria.

R. Eguin bedi nigan zue esan dozuna.

*Ave Mariya.*

V. Jaungoicoaren Semia guizon eguin zan.

R. Eta gueure artian bici izan zan.

*Ave Maria.*

V. Jaungoicuaren Ama Santia, erregutu eguizu gugaitic.

R. Cristoren aguintzarien duiñ izan gaitezan.

## ORACIÑOA

Emon eiguzu arren, Jauna, gueure arimetan ceure graciya, eta Ainguerusc barri onac ecarri, ta Cristo ceure Semiaren Guizon eguitea ezagutu dogunoc, bere Pasiño ta Curutziagatic betico gloriyara eroanac izan gaitezan. Amen.



## Ama Virgiñaren Letania.

Kyrie eleison.
Christe eleyson.
Kyrie eleyson.
Christe audinos.
Christe exaudinos.
Pater de Cœli Deus.—Miserere nobis.
Fili Redemptor mundi Deus.—Miserere nobis.
Spiritu Sancte Deus.—Miserere nobis.
Sancta Trinitas unus Deus.—Miserere nobis.
SANCTA MARIA. Ora pro nobis.
Sancta Dei Genitrix.
Sancta Virgo Virginum.
Mater Christi.
Mater Divinæ gratiæ.

Mater Purissima.
Mater Castissima.
Mater Inviolata.
Mater Intemerata.
Mater Inmaculata.
Mater Amabilis.
Mater Admirabilis.
Mater Creatoris.
Mater Salvatoris.
Virgo Prudentissima.
Virgo Veneranda.
Virgo Prædicanda.
Virgo Potens.
Virgo Clemens.
Virgo Fidelis.
Speculum Justitiæ.
Sedes Sapientiæ.
Causa nostræ letitiæ.
Vas Spirituale.
Vas Honorabile.
Vas insigne Devotionis.
Rosa Mystica.
Turris Davidica.
Turris Eburnea.
Domus Aurea.

Fœderis Arca.
Janua Cœli.
Stela Matutina.
Salus Infirmorum.
Refugium Peccatorum.
Consolatrix Aflictorum.
Auxilium Christianorum.
Regina Angelorum.
Regina Patriarcharum.
Regina Prophetarum.
Regina Apostolorum.
Regina Martyrum.
Regina Confesorum.
Regina Virginum.
Regina Sanctorum omnium.
Regina Sacratissimi Rosarii.
℣. Agnus Dei qui tollis peccata mundi.
℟. Parce nobis domine.
℣. Agnus Dei qui tollis peccata mundi.
℟. Exaudi nos domine.
℣. Agnus Dei qui tollis peccata mundi.
℟. Miserere nobis.
℣. Ora pro nobis Santa Dei Genitrix.
℟. Ut digni efficiamur promissionibus Christi.

## OREMUS

Gratiam tuam, quæsumus Domine, mentibus nostris infunde, ut qui Angelo nuntiante Christi Filii tui Incarnationem cognovimus, per pasionem ejus et Crucem ad Resurrectionis gloriam perducamur. Per eumdem Christum Dominum nostrum. Amen.

# ERROSARIO SANTUA

## MISTERIO GOZOTSUAC

ASTELEN TA EGUENEAN ESANGO DIRIANAC

LENENGO MISTERIOA.—Jaungoicoaren Semea guizon eguitea.

BIGARREN MISTERIOA.—Santa Isabelen bisitea.

IRUGARREN MISTERIOA.-Jesucristoren jaiotza.

LAUGARREN MISTERIOA.—Jerusalengo Eleisan bere Semea Ama Virgiñeac opata eskeñi ebanean.

BOSTGARREN MISTERIOA.—Jerusalengo Eleisan bere Semea arkitu ebanean artu eban pozcaria andia.

## MISTERIO DOLOREZCOAC

MARTITZEN TA BARICURACO

LENENGO MISTERIOA.—Jesemanico Ortuan Jesucristoc igaro eban agonia ta larritasuna.

BIGARREN MISTERIOA.—Esto-billosturic Colunnau azotadu ebanean.

IRUGARREN MISTERIOA. —Jesucristoc igaro eban dolore andia aranzazco Coroia buruan sartu eutseenean.

LAUGARREN MISTERIOA. — Curutze astunaz sorbaldan urten ebanean Calbariora.

BOSTGARREN MISTERIOA.—Dolore andiz inguraturic ill zaneau Curutzean josiric.

## MISTERIO GLORIOTSUAC

### DOMECA, EGUASTEN TA ZAPATURACO

LENENGOA MISTERIOA.—Jesucristo biztu zanean illen artetic.

BIGARREN MISTERIOA.—Jesucristoren igoerea zeruetara.

IRUGARREN MISTERIOA.---Espiritu-Santu Jaunaren etorrerea.

LAUGARREN MISTERIOA.—Marija Santisimaren igoerea zeruetara.

BOSTGARREN MISTERIOA. —Ama Virgiñari zeruetan emon yacan gloria coroia ta escubide andia.

## MESA ERASOTECO MODUA

*Sac.* In nomine Patris, et Filii, et Spiritus Sancti. Amen. Introibo ad Altare Dei.

R. Ad Deum qui lætificat juventuten meam.

S. Judica me Deus, et discerne causam meam de gente non sancta: ad homine iniquo et doloso erue me.

R. Quia tu es Deus fortitudo mea: quare me repulisti; et quare tristis incedo, dum affligit me inimicus.

S. Emitte lucem tuam, et veritatem tuam: ipsa me deduxerunt et adduxerunt in montem sanctum tuum et in tabernacula tua.

R. Et introibo ad Altare Dei: ad Deum qui lætificat juventutem meam.

S. Confitebor tibi in cithara Deus, Deus meus quare tristis est anima mea, et quare conturbas me.

R. Spera in Deo quoniam adhuc confitebor illi salutare vultus mei et Deus meus.

S. Gloria Patri, et Filio, et Spiritu Sancto.

R. Sicut erat in principio, et nunc et semper, et in sæcula sæculorum. Amen.

S. Introibo ad Altare Dei.

R. Ad Deum qui lætificat juventutem mean.

S. Adjutorium nostrum in nomini Domini.

R. Qui fecit cœlum et terram.

S. Confiteor deo omnipotenti etc. Et vos fratres orare pro me ad Dominum Deum nostrum.

R. Misereatur tui omnipotens Deus, et dimissis peccatis tuis, perducat te ad vitam æternam. Amen.

S. Confiteor Deo omnipotenti, beatæ Mariæ semper Virgini, beato Michaeli

Archangelo, beato Joanni Baptistæ, sanctis apostolis Petro et Paulo, omnibus sanctis, et tibi Pater quia peccavi nimis cogitatione verbo et opere, mea culpa, mea culpa, mea maxima culpa. Ideo precor beatam Mariam semper Virginem, beatum Michaelem Archangelum, beatum Joannem Baptistam, sanctos apostolos Petrum et Paulum, omnes Sanctos et te Pater orare pro me ad Dominum Deum nostrum.

S. Mireatur vestri Omnipotens Deus et dimisis peccatis vestris perducat vos ad vitam æternam.

R. Amen.

S. Indulgentiam, absolutionem et remissionem pecatorum nostrorum tribuat nobis Omnipotens, et misericors Dominus.

R. Amen.

S. Deus tu conversus vivificabis nos.

R. Et plebs tua lætabitur in te.

S. Ostende nobis, Domine misericordiam tuam.

R. Et salutare tuum da nobis.

S. Domine exaudi orationem meam.
R. Et clamor meus ad te veniat.
S. Dominus vobiscum.
R. Et cum spiritu tuo.
S. Oremus: Aufer a nobis, etc.
S. Kyrie eleison.
R. Kyrie eleison.
S. Kyrie eleison.
R. Christe eleison.
S. Christe eleison.
R. Christe eleison.
S. Kyrie eleison.
R. Kyrie eleison.
S. Kyrie eleison.
S. Dominus vobiscum.
R. Et cum spiritu tuo.
S. Per omnia sæcula sæculorum.
R. Amen.

ACABADA LA EPÍSTOLA

R. Deogratias.
S. Dominus vobiscum.
R. Et cum spiritu tuo.
S. Sequentia Sancti Evangelii secundum, etc.

R. Gloria tibi Domine.

ACABADO EL EVANGELIO PRIMERO

R Laus tibi Christe.
S. Orate fratres.
R. Suscipiat Dominus sacrificium de manibus tuis ad laudem et gloriam nominis sui, ad utilitatem quoque nostram, totiusque Ecclesiæ suæ sanctæ.
S. Amen.

CUANDO DICE EL PREFACIO

S. Per omnia sæcula sæculorum.
R. Amen.
S. Dominus vobiscum.
R. Et cum spiritu tuo.
S. Sursum corda.
R. Habemus ad Dominum.
S. Gratias agamus Domino Deo nostro.
R. Dignum et justum est.

DESPUÉS DEL PATER NOSTER

S. Et ne nos inducas in tentationem.
R. Sed libera nos á malo.
S. Pax Domini sit semper vobiscum.

R. Et cum spiritu tuo.
S. Ite Misa est, (edo) Benedicamus Domino.
R. Deo gratias.
S. Requienscant in pace.
R. Amen.
S. Pater et Filius et Spiritus Sanctus.
R. Amen.
S. Dominus vobiscum.
R. Et cum spiritu tuo.
S. Sequentia Sancti Evangelii secundum etc.
R. Gloria tibi Domine.

ACABADO EL EVANGELIO ÚLTIMO

R. Deo gratias.

## BIAR DAN LEGUEZ

[library stamp]

# Moldiztegnico utseguiñen zucembidea.

| Orrija | Errenglela | DAGO | IRACURRI BEDI |
|---|---|---|---|
| 6 | 9 | ceure | ceuri |
| 6 | 18 | eguizu | eguizus |
| 8 | 7 | gulzotasun | gulzontasun |
| 12 | 17 | eriozezaz | eriotzeaz |
| 14 | 24 | cerzuec | cerizue |
| 19 | 12 | Jesucristo | Jesucristoc |
| 20 | 5 | Santua? | Santua. |
| 20 | 20 | dogoque | dagoque |
| 21 | 2 | da | dan |
| 28 | 16 | daguiguzula | daguiguzala |
| 29 | 16 | duta | du ta |
| 31 | 5 | neraz | neraz |
| 33 | 22 | biurtu | biartu |
| 38 | 9 | emondarue | emon darue |
| 40 | 24 | dagozanoc | dagozanac |
| 42 | 15 | beardan | bear dan |
| 42 | 22 | gaisqueñen | gaisquiñen |
| 48 | 15 | langarren | laugarren |
| 48 | 19 | deustezu | deutsezu |
| 49 | 21 | alcenzauco | alcanzauco |
| 64 | 6 | bicitzea, bera | bicitzea bera, |
| 67 | 3 | bacarren | bacarrean |
| 74 | 14 | guztieyen | guztiyen |
| 75 | 3 | deuzcuzan | deuscuzuzan |
| 77 | 5 | audinos, exaudinos | audino nos exaudi nos |
| 77 | 7 | coeli | cœlis |
| 77 | 10 | Spiritu | Spiritus |
| 79 | 23 | Santa | Sancta |
| 81 | 10 | opata | opa ta |
| 83 | 8 | ad | ab |
| 84 | 4 | est | es |
| 85 | 9 | Spiritu | Spiritus |
| 85 | 12 | Mireatur | Misereatur |
| 88 | 5 | Requiemscant in pace. | Requiescant in pace. |

A
19